iruñeko planetarioa

PLANETEC

izarrak · teknologia · zirrarak

IZAR-ESKOLA

2016-2017 ikasturtea

Ikasteko gogoak pizteko baliabidea. Adin guztientzat.



2016-2017 ikasturteko BERRIKUNTZA Saio zientifiko-teknologikoekin bisitaldia osatzeko aukera!

Iruñeko Planetarioa. Sancho Ramírez, z/g
31008 Iruñea, Nafarroa - T 948 26 26 28

www.pamplonetario.org

Iruñeko Planetarioaren zientzia-dibulgazio eta hezkuntza jarduerek Obra Social "la Caixa" eta Fundación Caja Navarraren sustapena dute.

iruñeko planetarioa

PLANETARIOKO SAIOA

Izar-eskolako saio bakoitza berezia da eta izarrez beteriko kupula azpian gauzatzen da.

Emankizuna hiru azpiataletan banatzen da: lehendabizi, saioari izena paratzen dion pelikula proiektatzen dugu. Pelikula bakoitzak planetarioko lantaldeak propio egokitutako material didaktikoa dauka. Bigarren zatian, gure izar-proiektorea nagusituko da eta bisitaldiaren egun bereko zeruan izanen diren astro eta konstelazio nabarmenenak ezagutuko ditugu. Azkenik, teknologiaren eskutik zientzialari edo astronauta bilakatuko gara interneten laguntzaz.

SAIOEN ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera (eskola-egunak) 10:00etan eta 12:00etan. Gehienezko iraupena: 90 minutu.

IKASLE BAKOITZEKO PREZIOA: 4€

Saioa hasi baino 15 minutu lehenago planetarioan egotea komeni da.

ERRESERBA EGITEKO ARGIBIDEAK

Erreserbak gure online galdetegiaren bitartez eginen dira. Eskaria jasotzen dugularik, zuekin harremanetan jarriko gara behin betiko saioa finkatzeko.

HIZKUNTZAK

Euskara, Gaztelania eta Ingelesa. (hizkuntza erreserba egiterakoan hautatzen da). Frantsesa eta Alemaniera eskariaren arabera.

PELIKULEN ZERRENDA Pelikulek saioari izena ematen diote eta adin desberdinentzat prestatuta daude.

Haur Hezkuntza 1., 2. eta 3. mailak
- *Bostiren mundua* eu es

Haur Hezkuntza 3. maila
- *Alderantziz ibiltzen zekien neskatikoa* eu es en

Lehen Hezkuntza 1. eta 2. mailak
- *Uraren bila* eu es
- *Asto bat hipodromoan* eu es
- *Non dago eguzkilorea?*

Lehen Hezkuntza 3. eta 4. mailak
- *Zeruko marrazkiak* eu es
- *Banpiroaren gaua* eu es

Lehen Hezkuntza 1., 2., 3. eta 4. mailak
- *The adventures of Alex & RGB* en

Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak
- *Amamalur* eu es en
- *Izarretako zirkoa* eu es

DBH 1. eta 2. maila
- *Gora begira* eu es

DBH, Batxilergoa, L.H., H.H.E.
- *NanoCam - Unibertsoaren eskalak* eu es
- *Zeru sakonean* eu es en
- *Energia bizia* eu es en
- *Eboluzioa* eu es en
- *Supernova* eu es

Izar-eskolaren helburu nagusia eskola curriculuma osatu eta garatzea da, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino, baita Lanbide Heziketa edota Helduendako Hezkuntzaren mailak hartuz ere. Ikasteko prozesua jolasarekin lotzen duen hezkuntza-eskaintza proposatzen dugu eta gure tresna nagusia izarrez beteriko zerua izanen da.

PLANETAK *[Osatu bisitaldia]*

2006. urtean Nazioarteko Astronomia Elkargoak "planeta" kontzeptua berdefinitu zuen. Hezkuntza-ziklo bakoitzera egokituz kontzeptu berria landuko dugu: zein baldintza bete behar ditu astro batek planeta bat izateko? Zer da nano-planeta bat? Eta satelite bat? Eguzki Sisteman objektu desberdinak aurki ditzakegula ikusiko dugu.

Saio gehigarri hau ikus-entzunezko proiekzioekin lagunduta eginen dugu diziplina anitzeko ingurune batean.

IKASLE KOPURUA

Jarduera hau planetarioko auditorioan gauzatuko da, kupulak berak baino toki gehiago duena, beraz, ez dago kopuru mugarik.

IRAUPENA - Ordubete.

PREZIOA

2€ Izar-eskolan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko.

LEHEN URRATSAK PROGRAMAZIOAN ETA ROBOTIKAN *[Osatu bisitaldia]*

*Oharra: saio hau momentuz **gaztelaniaz** eskaintzen dugu. Euskaraz izatea nahi baduzu, idatzi talleres@pamplonetario.org helbidera edo erreserba fitxategiko "oharrak" atalean aipatu eta zuen eskaria betetzeko ahaleginak eginen ditugu.*

Programazio eta hezkuntza-robotikan lehen urratsak emateko saioan robot baten oinarrizko funtzionamendua erakutsiko da (bai modu birtualean, pantailan, zein modu fisikoan). Robotarekin nola komunikatu irakasteaz gain, bere programazio eta pentsamenndu konputazionalaren egitura sinpleenak argituko dira. Ikasleentzat ezagunak diren agertoki ezagunak erabiliko dira (hiri bat, internet bera...) eta horietan planteatzen diren problema errealak robotaren programazioaren bitartez ebatzi beharko dituzte.

Saioa LEGO Mindstorm softwareare, Enchanting (robotikarako Scratchetik datorren programazio-lengoaia) edo Scratchekin egin daiteke ikasleen adinaren arabera eta zentruaren beharren arabera.

IKASLE KOPURUA - Gehienez 32.

ADINA

- Scratch: Lehen Hezkuntzako 2. mailatik aurrrera.
- NXT: Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrrera.

IRAUPENA - Ordu eta erdi.

PREZIOA - 4€ Izar-eskolan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko.

INTERNET ETA SARE SOZIALAK. ZURE IDENTITATE DIGITALA. *[Osatu bisitaldia]*

*Oharra: saio hau momentuz **gaztelaniaz** eskaintzen dugu. Euskaraz izatea nahi baduzu, idatzi talleres@pamplonetario.org helbidera edo erreserba fitxategiko "oharrak" atalean aipatu eta zuen eskaria betetzeko ahaleginak eginen ditugu.*

Internet eta sare sozialen kudeaketa probetxugarria ezagutzeko tailer praktikoa ikasleen adinari eta beren Sareko ezagutzei egokitua. Trena horien erabilera egokia bultzatuko da Interneten dauden arrisku eta aukerak zeintzuk diren ikasten duten bitartean. Konektatzen garen bakoitzean norberaren identitate digitala garatzen ari garela azpimarratuko da.

Interneten edukiak partekatzerako orduan kontutan hartu beharreko konexio seguruak, norberaren gaineko ezagutza eta erabilera egokientzako jarraibideak erakutsiko dira.

IKASLE KOPURUA

Jarduera hau planetarioko auditorioan gauzatuko da, kupulak berak baino toki gehiago duena, beraz, ez dago kopuru mugarik.

IRAUPENA - Ordubete.

PREZIOA

2€ Izar-eskolan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko.

OSATU BISITALDIA - ORDUTEGIAK- Asteartetik ostiralera (eskola-egunak), 10:30 edo 12:00etan (Izar-eskolako saioa hasi baino lehenago edo ondoren).

ERRESERBA - Izar-eskolako erreserba gunean hauta ezazu "Bisitaldia osatu nahi?" eremua eta ondotik zure eskaria biltzen duen testutxoa idatz ezazu. Erreserba eskaria jasotzen dugunean zuekin harremanetan paratuko gara jarduera zehazteko.